# Denbora-

## 1 Labirintoa

Eguzkia lainoetatik ihesi abiatu da. Hodeiek, ordea, eguzkiarengana hurbildu nahi dute. Zein da bide egokia?



## 2 Ezkutuko hitza

Donostiako auzoen izenak ezagutuko dituzu dagoeneko, ezta? Hizkiak leku egokian jarri, eta Donostiako lau auzoren izenak osatuko dituzu.




## 3 Itzalak

Manexek kutxa batean gordetzen ditu eskutitz guztiak. Hauxe da kutxako giltza. Itzal hauetatik zein da kutxako giltzarena?



# -pasa

Erantzunak: 2.- Amara, Antiguo, Gros eta Altza. 3.- (d). 4.- (a) eta (c)

## 4 Bikiak

Ander aitarekin joan da belar txarrak moztera. Biak igitaia berdinak erabili badituzte, multzo honetatik zein dira erabili dituzten igitaiak?




## Kuboa

Joko estrategiko honetan hiru dimentsioko erronka bat proposatzen zaio jokalariari. Aurkariari irabazteko, adi egotea beharrezkoa da



1 Jolasean hasi aurretik, kubo bat sortu behar dugu. Kuboaren alde bakoitza bederatzi laukitan banatu behar dugu.

2 Bi jokalarik bakarrik joka dezakete. Jokalari bakoitzak, txandaka, laukien barruan biribil bat (O) edo ixa bat (X) marraztu behar du.

3 Aukeratu duen ikurra lau aldiz jarraian marraztea izango da jokalari bakoitzaren zeregina edo erronka. Era berean, adi egon beharko du, aurkariak lau ikur berdin jarraian marraz ez ditzan.

4 Bere ikurra lau bider jarraian marrazten duen lehen jokalariak irabaziko du jokoa.

5 Lau ikur horiek kuboaren alde berean edo bitan marraztu ahal dira.

## 5 Kopiatu koadroz koadro

Miren lagunekin mendira joan da, eta igel hau ikusi dute. Igel bera marraztuko al zenuke hutsik dauden koadroetan?



